



IPAR euskal HERRIKO IDORTE-PLana

URA: BALIO HANDIKO
ONDASUNA, ALDAKETA
KLIMATIKOAREN GARAIAN



 Pays
Basque
euskal
Herria

COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION
—
HIRIGUNE
ELKARGOA

HELBURUA: - %10

UR GUTIAGO KONTSUMITZEA

IPAR EUSKAL HERRIAN



Mundu osoan, lurraren berotze klimatikoak ur baliabidea mehatxatzen du eta Ipar Euskal Herria ere hunkitzen du. Fenomeno hori hain bizkor doan eta hain handia den non galdera ez den gehiago gure lurraldean idortetik izanen ote den baizik eta noiz gertatuko den. Iragarpenek diotenez, ur baliabidea %30ez ttipituko da hemendik 2040ra. Mundu mailan, urarekiko harremana tentsio eta gatazka iturri bilakatzen ari da. “Uraren gerla” aipatzea ez da gehiegizkoa baizik eta lurralde askoren errealitatea. Gure lurraldearen mailan, gure esku dago denei kalitatezko edateko ura ukaiteko bidea antolatzea, gure Klima-planean eta lurralde-proiektuan finkatua izan den bezala.

Duela zenbait urte truisimoa soilik izanen zen helburu hori arrunt politikoa bilakatu da eta nehoiz ikusitako neurriak eta diru mailako baliabideak eskatzen ditu. Egoera kezagarria baldin bada ere, aterabideak daude gure kontsumoa murrizteko eta etorkizunean gero eta maizago ikusiko ditugun eskasiei egokitzeko. Argi dut Ipar Euskal Herria erronka honen altxatzeko gai izanen dela, behar bezala prestatzen baldin bada. Hori da gure Idorte-planaren xedea.


2017an, Euskal Hirigune Elkargoaren sortzea izan zen uraren tratamendu politiko horretarako lehen urratsa. Lehen 114 egiturek kudeatzen zutelarik, orain uraren kudeaketa orokorra gure agintepean dago eta obra handiak, egituratzaileak abiatuak izan dira eraginkorrago izateko asmoz. Alabaina, arlo honetan, bateratzea eta elkarlana funtsezkoak dira. 2022an, elkarretaratu diren zerbitzuek hobeki tratatu dituzte larrialdiak.

Uraren barometro bat martxan jarri dugu bakoitza baliabidearen agortzeaz ohar dadin, modu arrunt objektiboan eta gardenean. Politika ez da adituen gaitasuna, baizik eta lotura egiten duena. Hara zergatik, uda honetatik goiti, herritarrak, laborariak eta enpresak euri-urak biltzeko ontziak jartzen lagunduko ditugun. Denok elkarrekin, gure uraren kontsumoa %10ez ttipitzeko gai izan behar gara, Ipar Euskal Herrian uztail honetan kontsumitutako 30 milioi ur kuboetatik 27 milioira pasatuz 2024ko uztailean, errealista eta egingarria den soiltasun helburua.

© Côté Sud Photos



Jean-René Etchegaray
Euskal Hirigune
Elkargoko
Lehendakaria



© CAPB

Lurra egarri da eta gure kabalak egarri dira. Egoerak gure laborariak larriki hunkitzen ditu, haien ondoan izanen gara. Neurri bat baino gehiago aurreikusi ditugu haien laguntzeko, besteak beste haien gisa utzitako ur-harpen batzuk seguru ezartzea. Ura berriz isuriko da etxalde batzuetan!

Erran gabe doa uraren tratamendu politikoa ezin dugula pentsatu prezioak egokitu gabe, alde ekologikoa eta soziala kontuan hartuz, lurraldearen mailan, mugikortasunerako egin dugun bezala TXIK TXAK sarean. Lan hori aurten eramanen dugu.

Gure garapen ereduak berriz asmatu behar dira eta, ildo horretan, berrikuntza ezinbestekoa da. Euri-urak, ur zikinak berrerabiltzea, laborantza edo industria prozesu berriak sortzea, hirigintza berriz pentsatzea, hara gure ikertzaileak, gazteak, ingeniariak mobilizatzen dituen, funtsezko erabaki honen inguruan. Lagundu behar ditugu.

Eraginkortasuna, Soiltasuna, Elkartasuna, Berrikuntza, horiek dira gure Idorte-planaren eta elkarrekin altxatuko dugun erronkaren ardatzak.

IPAR euskal HERRIKO IDORTE-PLANA



5 000 km-ko erreka eta 35 km-ko itsasbazterrarekin, Ipar Euskal Herria ur herrialde bat da. Haatik, euri aldiak biziagoak baina urriagoak izaten dira. Lurpeko ur geruzek eta errekek denbora gehiago behar dute berriz betetzeko eta ez dira lehen bezainbeste betetzen. Joan den udan, herri batzuek zailtasunak ukan dituzte edateko urez hornitzeko.

Klima nahasmendua bizkorrago doa eta borroka honetan parte hartu behar dugu. Gurea den engaiamendua denei kalitatezko edateko ura ukaiteko bidea segurtatzea da, lurralde oso-osoan.

Horretarako, denen arteko ekintza plan bat finkatzean aritu gara lanean, uraren zikloa batzordearen proposamenak eta xedek oinarritzat hartuz. Batzordekide guziak eskertzen ditut bide orri honen apailatzean ekarri diguten laguntzagatik. Hemendik aitzina, neurriak, egutegi bat eta aritzeko gaitasuna ditugu.

Ipar Euskal Herriko Idorte-plana lau ardatzen inguruan eraikitzen da, Frantzia mailako planaren harira eta honen osatzeko: baliabidearen eskuragarritasuna optimizatzea, soiltasuna antolatzea, elkartasuna segurtatzea eta berrikuntza engaiatzea. Egokitzea behartzen gaitu eta denok hunkitzen gaitu: erabiltzaileak, profesionalak, kolektibitateetan, enpresetan, etxaldeetan.

Datozen erronkei begira eta zailtasunak jadanik hor daudelarik, jestu guziek dute beren garrantzia. Bakoitza gure aldean engaiatzera gomitatua da, urarekiko harreman berri baten alde. Dokumentu hau aldakorra izateko xedea duen lehen bertsio bat da, oraindik igurikatzen diren gobernuaren neurriak eta arauen bilakaerak barne hartzeko gisan. Hala ere, dokumentu garrantzitsua da, oinarritzakoa, egoeraren larritasuna agerian ezartzen duena eta, uda honetatik goiti, Ipar Euskal Herriarentzat, urari dagozkion erantzun konkretuak ekartzeko prest garelako erakusten duena.



© Carole Pro

Emmanuel ALZURI
Kontseilari ordezkarria
- Edateko ura -
Itsasbazterra, UIKUP
eta ingurune naturalak

aurkibidea

Baliabidea optimizatzea	6
Soiltasuna antolatzea	8
Elkartasuna segurtatzea	12
Berrikuntza sustatzea	14

Idorte-plana 2023/07/01eko Elkargoko Kontseiluko 8. deliberoaren bidez onartua izan da.

Kredituak

Lan grafikoa
Flora Roliers

Itzulpena
ZIRTOKA - Euskal Traduction
Argitxu Errotabehere

Azaleko argazkia
Images France

BALIABIDEA OPTIMIZATZEA



2020tik goiti, Euskal Hirigune Elkargoak bere lurraldean ur baliabideari buruzko ikerketa lan bat abiatu du, besteak beste aldaketa klimatikoaren eragina neurtzeko. Ikerketa honen emaitzek Ipar Euskal Herrian, fenomeno horren ondorioz, eskuragarri den uraren galtzea %30ekoa izanen dela hemendik 2040ra erakusten dute. Egoera honen aitzinean, Plan honen lehen ardatza ur baliabidearen eskuragarritasuna optimizatzea izaten da, edateko uraren bilketa hobetuz eta isurtzeak murriztuz.

Aturri-Garona Ur Agentziak sustatutako atal hori 40 milioi euroko inbestimendutan estimatua da hurrengo 5 urteetarako, eta 70 milioi eurotan epe luzeagorako.



> Ur bilketaren ahalmenak hobetzea bai iturrietan bai erreketan

- 2023tik goiti
- **Helburua:** 138 gune modernizatuak 2024 hondarrerako

> Edateko ur sareen errendimendua eta ahalmena hobetzea

- 2023tik goiti
- **Helburua:** 30 km sare urtero

> Sareen interkonexioa garatzea

- 2023tik goiti
- **Helburua:** Ipar Euskal Herriko gune guziak interkonektatzea hemendik 2040ra

> Isurtzeen bilaketan soilik arituko diren 3 pertsonetako lantalde bat sortzea

- 2023tik goiti
- **Helburua:** %10 ur galtze baino gutiago sare osoan, %90eko errendimendura heltzeko hemendik 2030era (gaur egun %78koa delarik)

> Baliabide bakoitzaren egoera eta bilakaera jarraikitzea denbora errealean: jarraipen-kaptadoreak ezartzea

- 2023tik goiti
- **Helburua:** baliabide guziak hornituak 2024 hondarrerako

> Larrialdi kudeaketaren antolakuntza azkartzea

- 2023ko udatik goiti
- **Helburua:** Euskal Elkargoaren eta honen partaideen esku hartzea segurtatzea 24 ordu baino guttiagotan

> Herriei erregulariki berri ematea

- 2023ko udatik goiti
- **Helburua:** berri-astekari bat sortzea baliabide bakoitzaren egoera jarraikitzeko

> Pirinioz gaindiko arro hidrografikoen mailan lan egitea

- 2024tik goiti
- **Helburua:** jakintzak eta uraren azpiegiturak partekatzea denen arteko kudeaketa baterako



Lurpeko sare batean, isurtzeak egiturazkoak dira, hala Ipar Euskal Herrian nola beste edozein lekutan. Martxo hondarrean Emmanuel Macronek aurkeztu duen **Ur Planak** %50 baino errendimendu guttiagoko 170 herri aipatu ditu, laguntzak eskuratzen ahalko dituztenak.

Ipar Euskal Herria ez da hunkitua: isurtzeak lurraldeko 5.600 km-ko hodi guzien %22ri baizik ez dagozkie. Isurtze gehien dituzten eskualdeak baserri aldekoak dira, hodi asko baitira, kontsumo ttipiarekin.


SOILTASUNA ANTOLATZEA



Ipar Euskal Herrian, partikularrek edateko uraren %75 kontsumitzen dute, laborantzak %14, industriak %10 eta zerbitzu publikoek %1 (ospitaleak, Herriko Etxeak, eskolak...).

Gure lurraldeko batez besteko kontsumoa 192 litrokoa da egunero, hornitutako herritar bakoitz. Batez besteko kontsumo hori Frantzia mailakoa baino %15ez goragoa da.

Plan honek erabilpen bakoitzari dagozkion neurri bereziak barne hartzen ditu, funtsezko soiltasun kultura gauzatzeko Ipar Euskal Herrian.



Denentzat

› Euri-urak biltzeko ontziak jartzeko diru laguntzak eskaintzea: berehalako 100.000 euroko laguntza

- 2023ko udatik goiti
- **Helburua:** soiltasun urraspide batean eta ura berrerabiltzeko engaiatzen diren herritar guztiak laguntzea (partikularrak, profesionalak)

Partikularrentzat

› Sentsibilizazio kanpaina bat zabaltzea

- 2023ko udatik goiti
- **Helburua:** aholku praktikoak proposatzea eta herritarrak ur gutiago xahutzera bultzatzea

› Euri-urak biltzeko ontziak jartzeko diru laguntzak eskaintzea

- Berehala
- **Helburua:** herritarrak beren kontsumoaren hein batean autonomo izatera bultzatzea (baratzea ureztatzeko adibidez) ura biltzeko ontzia baten erosketan parte hartuz, erosketa froga aurkeztuz geroz



Interneten simulatzaile bat baino gehiago daude, hala nola urari buruzko informazio Zentroarena (CIEAU), egunerokotasunean ur gehien xahutzen duten jarduerak hobeki estimatzeko. Euskal Hirigune Elkargoak tokiko elkarte batzuen lana ere laguntzen du, hala nola Water Family - Du flocon à la vague (lumatik uhinera). Garatu duen "empreinte H2O" (H2O aztarna) tresna numerikoari esker, etxeko kontsumoa estima daiteke, baita janaria edo jantzien arloko hautuek kutsaduraren heinean eragin ditzaketen kalteak ere.

www.empreinteh2o.com





*CIEAU - Urari buruzko informazio Zentroaren datuak



Banakako ur kontsumoa %10ez ttipitua izan daiteke eguneroko dutxa hartzeko denbora minutu batez murriztuz: dutxarako minutu batek 15 litro ur xahutzen ditu. Ipar Euskal Herriko 320.000 herritarrek minutu bat gutiago iraganen balute dutxatzen, lurraldeko edateko uraren kontsumoa %6z ttipituko litzateke.



4 pertonez osatutako familia batek 120 m³ ur xahutzen ditu guti gorabehera urtero, aldiz familia xuhur batek 95 m³ soilik erabil ditzake: hots ehun bat euroko desberdintasuna bi familia horien artean.



Datuak biltzeko eta igortzeko telesistema bat jar daiteke ur-kontagailuan ura baliatzeko ohiturak doitzeko egun batetik batera.



Urte oso batez ura galtzen duen **komuneko tanga batek** 1 000 euro inguruko galtzea eragiten du. Hau da kasik pertsona baten urteko ur kontsumoaren kostua.

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN ENGAIAMENDUAK

- > Elkargoko eraikinen, igerilekuen kontsumoa ezagutzea, jarraipen erregular baten bidez eta kontagailu komunikatzaileak plantan ezartzea
 - 2023ko udatik goiti
 - **Helburua:** ohiz kanpoko kontsumo orori laster ihardukitzea

- > Kontsumoak murriztea ur gutiago kontsumitzen dituzten ekipamenduak jarriz (presio murriztaileak, emari murriztaileak, uhate-giltzak, urik gabeko pixatokiak, etab.)
 - 2023ko udatik goiti
 - **Helburua:** kontsumoak murriztea

- > Elkargoko eraikinen menturazko isurtzeak bilatzea
 - 2024tik goiti
 - **Helburua:** elkargoko eraikinen uraren jarraipen prozedura bat gauzatzea

- > Euri-urak biltzeko ontziak jartzea eta Trataturako Ur Zikinak Berrerabiltzearen egingarritasuna ikertzea elkargoko eraikinetan
 - 2023tik goiti
 - **Helburua:** eraikinen ur hornikuntza aniztea

- > Igerilekuetan aldatutako uren berrerabiltzearen egingarritasuna ikertzea
 - 2024tik goiti
 - **Helburua:** edateko uraren kontsumoa murriztea eta ekipamenduen ur hornikuntza aniztea



ZERBITZU PUBLIKOENDAKO LAGUNTZAK

> Euri-urak biltzeko ontziak jartzeko diru laguntzak eskaintzea

- 2023ko udatik goiti
- **Helburua:** lurraldeko herriak eta partaideak beren kontsumoaren hein batean autonomo izaten laguntzea diru laguntzen bidez

> Herriak beren kontsumoa murrizteko bidean laguntzea

- 2023ko udatik goiti
- **Helburua:** herrietako eraikinen eta ekipamenduen kontsumoak murriztea

> Trataturako Ur Zikinen Berrerabiltzearen egingarritasuna ikertzea

- 2023ko udatik goiti
- **Helburua:** eraikinen edateko ur hornikuntza aniztea

> Klima eta Erresilientzia Legearen aholkuak betetzea lurrazaleko euri-urak kudeatuz (soilik)

- 2023ko udatik goiti
- **Helburua:** lurpeko ur geruzak berriz betetzea



Euri-uren kudeaketak uholdeen aurka borrokatzea ahalbidetzen du, alde batetik, eta lurpeko ur geruzak berriz betetzea bestalde, euri-urak lurrean sarraraziz.

Proiektu ekarleak urbanizatutako lurren iragazkortasuna mantentzeko edo berriz eskuratzeko aterabideak aurkitzen laguntzea eskatzen du horrek: adibidez, errepideen eta bideen geruzak estaldura porotsuz ordezkatuz, kubeta itxurako berdeguneak sortuz ura lurrean sar dadin, sasiak landatuz, edota ageriko ubideak eta arroilak sortuz euri-urak hobeki isur daitezen eta hiri guneak freskatzeko.



INDUSTRIALARIENDAKO LAGUNTZAK

› Euri-urak biltzeko ontziak jartzeko diru laguntzak eskaintzea

- Berehala
- **Helburua:** enpresak beren kontsumoaren hein batean autonomo izaten laguntzea diru laguntzen bidez

› Enpresak kontsumoa murrizten laguntzea erresilientzia eta emaitzak kontratuaren bidez eta enpresa-higiezina lagunduz (Euskal Hirigune Elkargoaren laguntza ingurumenaren arloko neurrien errespetuari baldintzatzen duten dispositiboak, uraren kontsumoaren ttipitzea barne)

- Berehala
- **Helburua:** gehiegizko kontsumoa saihesteko bideak optimizatzea, ura birziklatzea eta berrerabiltzea prozesuetan

› Tratutako Ur Zikinen Berrerabiltzearen egingarritasuna ikertzea

- 2023tik goiti
- **Helburua:** ura berrerabiltzea industria-prozesuetan, enpresen hornikuntza anizteko

› Ur baliabidea gutiago kontsumitzeari buruzko tailer bereziak abiatzea, Ipar Euskal Herria Industria Lurraldearen 2. programaren esparruan

- 2023ko udatik goiti
- **Helburua:** industrialariekin beren kontsumoak hobetzeko aterabideak ikertzea

› Edateko ur asko kontsumitzen dituztenak eta edateko uraz hornitzeko gune ahulenak maparatzea

- 2023tik goiti
- **Helburua:** lurraldea eta honen erronkak hobeki ezagutzea, ekintzak lehentasunen arabera sailkatzeko

› Jarduera ekonomikoko guneen jartzea aitzinetik ikustea, uraren eskuragarritasunaren arabera

- 2023tik goiti
- **Helburua:** enpresen jartzea uraren eskuragarritasunaren arabera egokitzea eta gune ahulenen egoera ez larriagotzea

› Sentsibilizazio programa bat apailatzea eta enpresak urari buruzko dispositibo berritzaileetan laguntzea

- 2024tik goiti
- **Helburua:** sentsibilizazio dispositibo bat plantan ezartzea Aturri-Garona Ur Agentziarekin loturan eta enpresak aldaketa klimatikoari egokitzeko estrategietan laguntzea



Tratatutako Ur Zikinen Berrerabiltzea ur zikinak tratatzean eta berrerabiltzean datza. Tratatutako direlarik, ur horiek balorizatuak izan daitezke: kolektibitateek erabil ditzakete berdeguneak, golf zelaiak ureztatzeko, eremu publikoak garbitzeko eta suteen aurka borrokatzeko.

Frantzian, araztutako uren %1 baino gutiago berrerabilia da, Italian edo Espainian baino askoz gutiago, tratatutako %8 eta 14 arteko ur zikinak berrerabiltzen dituztelarik. Arauak aldatzen ari dira halako ohiturak ahal bezainbat sustatzeko, Europako Batzordeak birziklatutako ur zikinen bolumena 6 aldiz emendatzeko helburua duelarik.

LABORARIENDAKO LAGUNTZAK



Euskal Hirigune Elkargoak “Laborantza eta Ura” dispositiboa indartzeko erabakia hartu du, ERREKAGRI kalitatezko atala azkartuz eta Ipar Euskal Herriko erreka guzietan eta lurraldeko erronkei zabalduz (bakteriologia, nitratoak, pestizidak), baita ERREKAGRI 2 abiatzeko ere, hots etxaldeetan ur gutiago xahutzeko eta ur baliabidea hobeki kudeatzeko ekintza berriak.

➤ Baratzezainak eta abeltzainak euri-urak biltzeko ontziak jartzen laguntzea diru laguntzen bidez

- 2023ko udatik goiti
- **Helburua:** urtero 10 etxalde hornitzea laborariei beren kontsumoaren hein batean autonomo izan daitezen



© Ferme de l'Harde - CAPB



› “Laborantza kontagailuak” plantan ezartzearen sustatzea Aturi-Garona Ur Agentziak biltzen duen kutsadura zerga dispensa baliatzeko gisan

- 2023tik goiti
- **Helburua:** etxaldee eta etxeko ohiturei lotutako kontsumoak bereiztea gehiegizko kontsumoa saihesteko eta hornikuntza hobeki egokitzeko

› Baratzezainak eta abeltzainak edateko ur gutiago erabiltzeko materialak jartzen laguntzea diru laguntzen bidez (ponpak, irazkiak, xortakagailua, zilaketa, etab.)

- 2023ko udatik goiti
- **Helburua:** urtero 10 etxalde hornitzea edateko ur gutiago xahutzeko

› Abeltzainak beren azaleko iturri pribatuak egoera onean berriz ezartzen laguntzea diru laguntzen bidez

- 2023ko udatik goiti
- **Helburua:** urtero 5 iturri pribatu berritzea abeltzainei ur mailako autonomia handiagoa segurtatzeko

› Lurralde osoko etxaldek diruz laguntzea “uraren kalitatea” dispositiboaren esparruan: ErrekAgri (Erreka bazterrak hestea, kabalendako edateko guneak, konpostatzea, heskaiak, laguntza teknikoak)

- 2023tik goiti
- **Helburua:** urtero 10 etxalde hornitzea laborantza jardueren eragina murrizteko

› Belarra mekanikoki kentzeko formakuntzak eta esperimendazioak abiatzea laborantza guneetan

- Berehala
- **Helburua:** urtero bizpahiru formakuntza sustatzea, laborariak elkargoko lursailetan belarra mekanikoki kentzearen gauzatzean laguntzea

› Ur gutiago xahutzeko praktika eraginkorren esperimendazioa eta garapena laguntzea

- Berehala
- **Helburua:** laborantza saileko “ura” atalari buruzko ikerketa eta esperimendazioa laguntzea (urtero 5 sail laguntzea gutienez) baita uraren kudeaketa ere etxaldeen “Etxalde Berritzaileak eta Jarduera Laborantza-ekologikoak” proiektu deialdiaren bitartez (urtero 10 proiektu sustatuak)



Euskal Hirigune Elkargoak **erreken mailaren barometro bat** abian jarri du bakoitza bere kontsumoa lurraldeko baliabideen arabera egokitzera bultzatzeko xedez. Uraren ekowatt modukoa den barometro hori kontsulta daiteke Euskal Hirigune Elkargoko webgunean eta astelehenero eguneratua da.

eLKARTASUNA SEGURTATZEA



Gaur egun, urari dagozkion 575 prezio desberdin daude Ipar Euskal Herrian.

Lurralde-berdintasunaren aldeko ildotik, Euskal Elkargoak prezio harmonizatuak proposatuko ditu Ipar Euskal Herriko herritar guzientzat, TXIK TXAK mugikortasun sarean eramandako urraspidean egin duen bezala.

Euskal Hirigune Elkargoak herritarrei zerbitzu publikoa era berdinean eskaintzeko hautua egin du, bere lurraldean elkartasuna sustatzeko. Prezio harmonizatu horiei esker, uraren eta saneamenduaren zerbitzu publikoak Frantziako eraginkorrenetakoak izanen dira.

Harmonizazioa ahalbidetuko ditu:

- zerbitzuaren kalitatea hobetzea hartzaileen aldean,
- uraren kalitatea bermatzea, edateko ura tratatzeko goi mailako tekniken bidez, kutsagarri berriei buruzko arauen bilakaera aitzinetik ikusiz,
- behartsuenei diru laguntzak esleitzea,
- urtero ur hodien %0,5 berritzea, hots 30 km-ko hoditeria berriztatua urtero,
- inbestimendu programa ausarta diruztatzea, obralaritza publikoak eramanez, etorkizuneko lurraldea prestatzeko,
- zerbitzuen kudeaketa optimizatzea, belaunaldi berriko informazio sistemak zabalduz,
- energia berriztagarriak ekoiztea, ekonomia zirkularrekoa eta, orokorrago, zerbitzuek ingurumenean duten eragina kontuan hartzen duena.

> Prezio harmonizatuak proposatzea

- 2023tik goiti
- **Helburuak:**
 - > existitzen diren prezioak berregituratzea (zati finkoa eta zati aldakorra, urari eta saneamenduari dagokionez), prezio apalenak aldatzea*
 - > hemendik 2024ra, 5 urteren epean Ipar Euskal Herri osoan leundutako prezio harmonizatuen gain lan egitea, eko-elkartasunezko prezio bat barne hartuko duena

> Elkartasunezko prezio bat proposatzea

- 2024
- **Helburua:** behartsuenei ura ukaiteko bidea segurtatzea prezio sozialeko politika berri bat sortuz lurralde osoan

* **Prezioa binomiala da:** zerbitzua baliatzeko harpidetzari dagokion zati finko bat eta kontsumitutako bolumenei dagokien prezio aldakorra.

Ohiko familia baten kontsumoan oinarrituz (4 pertsona), erosteko ahalmenari kasu egiteak urteroko faktura gehienez 50 € emendatzera eramaten gaitu, hots, 4,2 € hilabeteka, zergarik eta Ur-agentziaren zerbitzu zergarik gabe.



Uraren zerbitzuen kostua?

Uste dugunaren kontra, kontsumitzaileak ez du ura ordaintzen...baizik eta honi lotutako zerbitzu guztiak. Zuzenagoa da beraz "uraren zerbitzuen prezioa" aipatzea. Argindar faktura batean bezala, uraren fakturak prezio finko bat eta prezio aldakor bat barne hartzen ditu. Azken hau etxeko kontsumoari dagokio. Orduan, kontsumitzaileak bere etxera ekarritako, erabilitako eta, beraz, tratatzeko / garbitzeko ur litro bakoitzerako ordaintzen du. Fakturaren prezio finkoa beharrezkoak diren muntaduren artatzeari eta ustiatzeari dagozkio.

BERRIKUNTZA SUSTATZEA



Soiltasuna plantan ezartzeko beharraz gain, **egiteko molde berriak garatu** behar dira eta baliabidea zaintzeko ikerketa eta berrikuntza sustatu. Ildo horretan, zenbait dispositibo lagunduak izanen dira.



› **Tratatutako Ur Zikinak Berrerabiltzeko aukera ikertzea, bideen garbiketaz, kirol zelaien eta berdeguneen ureztatzeaz gain**

- 2024tik goiti
- **Helburua:** ekipamendu eta muntadura publikoen ur hornikuntza aniztea

› **Euri-urak berrerabiltzeko menturak ere ikertzea**

- 2024tik goiti
- **Helburua:** zeharkakotasunean lanean aritzea euri-urak hirigintza dokumentuetan sarrarazteko

› **Zikintegi zaharrak edo lur alferrak erabiltzeko aukera ikertzea euri-urak biltzeko**

- 2024tik goiti
- **Helburua:** eskuragarri den ur kantitatea hobetzea



Ipar Euskal Herrian, batez besteko higrometria %67koa da. Atmosferako hezetasuna biltzeko sistemak zabaltzen ahalko dira. Kostu handikoak eta ahalmen gutikoak izanagatik ere, sokorri gisan erabil daitezke edo bazter herrixka edo etxalde bat hornitzeko. Aturri-Garona Ur Agentziak diruztatzearen %50ean parte har dezake.

Aldi berean, Euskal Hirigune Elkargoa ura baliatzeko logika berriak garatzean engaiatzen da. Hidroelektrizitate sistema bat edateko ura ekoizteko edo ureztatzeko dispositibo batekin nahastean datza, adibidez, agorte-emari bat mantenduz bioaniztasunerako. Orduan, “ur xortaren erabilera anitza” aipatzen da.



© Carole Pro

 **pays
Basque
EUSKAL
HERRIA**

COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION
—
HIRIGUNE
ELKARGOA

Foch etorbidea, 15, CS 88 507, 64185 Baiona Cedex

Tel. zk.: 05 59 37 75 75

contact@communaute-paysbasque.fr